

Helburuak:

- Ikasle izatea benetako pribilegio soziala dela konturatzea, bere eraikuntzarako balio handia dutela.
- Bakoitzaren gaitasun, behar eta interesen arabera ikasteko ordutegi pertsonala osatzen jakitea.

Saioaren garapena:

-“*Lanbidez.... Ikasle*”: galdetegia lanbidez...ikasle eta ikasle izan edo ez izateko arrazoiak dokumentuak. Bertan azalduta dago.

-“*Ikasteko denbora antolatu egiten dut*”: ikasteko denbora antolatzen, nola antolatzen dut ikasketa?, autotesta ikasteari buruz eta ikastea hobetzeko estrategiak dokumentuak. Bertan azalduta dago.

-“*Ikasketa metodoa*”: Hau da guk proposatzen dugun ikas metodoa, orokorrean gomendatzen dena. Badakigu, matematika eta filosofia ez direla berdin ikasten, baina oinarrian pausu hauek jarraitzea egokia iruditzen zaigu. Hemen zuen irakasgaiko unitate bat har dezakezue eta azaldu hori nola ikasi behar luketen, hau da, zuek gidatu irakasgai horren ikaskuntzan. Adibide bat eman gero beraiek egin dezaten berdina gainontzeko unitateekin.

Lanbidez...: ikasle

*** Justifikazioa:**

Ikasle askok normalean beraien ikasle baldintza zigor moduan bizitzen dute, bete behar duten zerbait baina bat ere gogorik gabe eta ahal bada ahalegin txikiena eginez. Horregatik ia ezinezkoa da, ikastea (ikaslearen egin beharra) motibagarri zein tentagarri izatea.

Ondorioz, gure esku dago ikasle izatearen abantailen berri ematea: zenbatek ikasi nahi luketen eta ezin duten, zenbati ez dioten utzi beren gaitasunak erakusten, zenbat damutu diren aukera eduki zutenean ez ikasi izanaz beraien bizitzan ...

Ikasle izatea pribilegio bat da. Guraso, gizarte eta ikastetxeek ikasle bakoitzarengan inbertsio handia egiten dute kultura eta formakuntzan. Beraz inbertsio horri erantzukizun eta esker onezko erantzutea beharrezkoa izango da.

*** Helburuak:**

- Ikasle izatea benetako pribilegio soziala dela konturatzea, bere eraikuntzarako balio handia dutela.
- Ikasteko benetako motibazio eta arrazoiez konturatzea.
- Ikaslearengan erantzukizun pertsonala sortzea familia eta gizartearen pribilegio horretako gastuei esker ona adieraziz
- Ikasle izatearen alde positiboa aurkitu, jarrera positiboa adieraztea ikasketen aurrean.

***Saioa egiteko jarraibideak**

1. Saioa hasteko, gaiari garrantzia eman eta ikasleak motibatzen saiatu; horretarako, justifikazioan dauden arrazoiak erabil daitezke.
2. "Lanbidez... ikasle" izeneko galdetegia bete bakoitzak berea.
3. Talde txikietan aztertu ikasle bakoitzak emandako erantzunak eta horietatik azpimarragarrienak aukeratu.
4. Txartel/orri ezberdinetan idatziko dira aukeratutako erantzunak. Txartelaren atzeko aldean idatziko da zein galderari dagokion erantzuna.
5. Azkenik, talde handian, galdera bakoitzari dagozkion txartelak bilduko dira eta banan banan irakurriko dira:
 - Txartel bakoitzaren erantzunak eztabaidatuko dira talde handian.
 - Erantzun bakoitzean egon daitekeen alderdirik positiboan jasotzen eta azpimarratzen saiatuko da tutorea.
6. Txartel guztiak irakurri ondoren, esandako guztiaren sintesia egiten saiatuko da tutorea, ikasle lanbidearen alderik onenak eta txarrenak nabarmenduz. Honen helburua da ikasleek nolabaiteko konpromisoa hartzea, galdetegiaren ondorioen atalean idatz dezaketena.
7. Beste saio batean, "Ikasle izateko ala ez izateko arrazoiak" izeneko testuaren iruzkina egin, bertan ematen diren jarraibideak segituz.

Lanbidez: ... Ikaslea

Galdetegia:

Ondoren, bete gabeko zenbait esaldi aurkituko dituzu, ikaslea izateri buruz ari direnak. Zure ustez egokiena den bukaera jarriozu horietako bakoitzari.

Zintzoa izan eta seriotasunez erantzun.

1. Ikaslea izatea da
2. Ikaslea naiz
3. Ikaslea izatearen onena da
4. Ikaslea izatearen okerrena da
5. Ikasle on bat(ek).....
6. Ikasle txar bat(ek)
7. Ikasteko dudan arrazoia da.....
8. Ikasten dudan helburua da
9. Nire ikaskideak dira.....
10. Nire ikaskideek egiten dutena da
11. Nire ikaskideek daukatena da
12. Nire ikaskideengatik espero dut
13. Ikasle bezala gehien kezkatzen nauena da
14. Ikasle bezala gehien gustatzen zaidana da
15. Ikasle bezala gehien amorratzen nauena da
16. Institutua.....
17. Irakasleak.....
18. Irakasgaiak.....
19. Ikasle bezala eskertzen dut
20. Ez da zuzena ikasle bat(ek).....

21. Ikasten jarraitzeko nire arrazoiak dira.....
22. Ez nago prest.....
23. Ikasketen aurrean.....
24. Nire gurasoek ikasteko esaten didate.....
25. Nire irakasleek ikasteko esaten didate
26. Ikasturte honetan prest nago.....
27. Ikasturte honetan ez dut onartuko.....
28. Ikaskideen artean egon beharko luke.....
29. Hobeto sentituko nintzateke besteak.....
30. Ikaskideen artean egin beharko genuke

Ondorioak:

- Ikasle izateagatik atsegina eta positiboa zera da:

.....
.....
.....
.....

- Ikasle izateagatik gogorra eta negatiboa zera da:

.....
.....
.....
.....

- Gure egoera hobetzeko ikastalde bezala zera egitera konprometitzen gara :

.....
.....
.....
.....



Ikasle izan edo ez izateko arrazoiak

Behin baino gehiagotan ikusi edo bizituko zenituen ondorengo egoerak:

ESZENA 1 (Heldu eta gazte bat ezagutu ondoren)

Heldua: Zuk... ikasi ala lan egiten duzu?

Gaztea: Ikasi...

Heldua: Eta ze maila?

Gaztea: 3. DBH

Heldua: Ze nota ateratzen dituzu?, Gainditzen al duzu?

Gaztea: eeeee Psss... Psss...

Ikusten duzu, ikasleak lau taldetan banatzen dira: ikasten dutenak eta lan egiten dutenak; nota onak ateratzen dituztenak eta txarrak ateratzen dituztenak. Hau da, ikasten duenak ez du lan egiten. Ikastea lana ez balitz bezala eta gainditzea edo ez garrantzitsuena balitz bezala. Ikasle bat definitzen duen azkarra bere notak balira bezala.

ESZENA 2

Gurasoa: Ez baduzu gainditzen, ez duzu ezertarako balioko. Soilik lurra garbitzeko.

Ikaslea: Ez dut uste eskailerak garbitzea zerbait txarra denik.

Gurasoa: Nola ikusten den ez duzula inoiz egin!

Ikaslea: ... Ba zu ere ez zaitut ikusi inoiz horretan.

Gurasoa: Ez badituzu nota onak ateratzen bizi osoan zorigaiztokoa izango zara!

Ikaslea: Hori ikusteko dago...

Gurasoa: zurekin hobe da ez hitz egitea... Egunen batean arrazoia emango didazu....

Ikaslea: Bale, oso ondo! (burua makurtzen du).

Badirudi pertsona baten zoriona edo zori txarra bere nota, titulu eta diplomen menpe soilik dagoela. Titulu eta nota oneko jende nagi edo alferrik ez balego bezala. Titulurik lortu ez arren, gizartean eguneroko bizitza eramangarriago izan dadin burutu beharreko lanak egiten dituzten asko daude: basura bildu, eskailerak garbitu, lurra ...

ESZENA 3 (ohikoa edozein eskola edo etxetan)

Ikaslea: Ezin dut, ez dut balio, ez dut ikasi nahi!...

Gurasoa: Zuretzat okerrago! Nik aukera hori izan banu!..

Ikaslea: zu zara eta ni ni!

Gurasoa: Gainera hori entzun behar! Zuregatik sakrifikatzen ari naizena eta ... ze gutxi eskertzen didazun!

Ze erru dute seme/alabek gurasoek ezin izan zutelako ikasi. Ikasi nahi ez duen ikaslearen aurrean gurasoek bizitzen duten atsekabearen atzean, beraiei bizitzak injustuki ukatu ziona eskaini nahi izatea dago. Edozein guraso behartuta dago bere seme/alaben beharrak asetzeraz, etekina aprobetxatzen duen edo ez kontuan hartu gabe.

ESZENA 4 (ebaluaketa baten bezperatan)

Gurasoa: Zer ari zara egiten?

Ikaslea: Ikasten.

Gurasoa: Eta zertarako ikasten duzu?

Ikaslea: ... nota onak ateratzeko ebaluaketa ... etorkizunean lanpostu on bat ...

Gurasoa: Horrela gustatzen zait. Ikasle ona zara. Seme zoragarria zara. Oso harro nago zutaz.

Ikaslea: Mil esker, orain utz nazazu bakarrik, bihar ebaluaketa daukat ...

Gurasoa: Bai , ... Oso ongi egiten duzu: ikasi, ikasi, azterketa zail baten aurrean zaude eta, gaixoa. Gero arte!

Gauza berdinarekin bueltaka beti, ikasi behar da gainditzeko, nota onak ateratzeko, gurasoak gustura egotekoa, etorkizunean lanpostu on bat lortzeko, ebaluaketa bezperan ...

Ikasketetan garrantzia duen bakarra gaintitzea denez, nota onak ateratzea, gurasoak gustura ... Nahiko da ebaluaketa/azterketa bezperatan ikastea, azkar eta presaka, ordenarik gabe, ikastea betebeharrak pertsonal gogor eta zorrotz baina aldi beran hazteko/formatzeko/gizartean laguntzeko/barne hazkuntzarako beharreko bezala ikusi gabe.

Lortu nahi dena gaintitzea denez, ikasketek momentu txarrak pasarazten dizkigute denoi, guraso, ikasle eta irakasle. Edozeren gaintetik gaintitzea inporta du, kopia, erreperatu, negar ... Ikastea ahalegin txikiarekin gaintitu beharreko obligazio txar batean bilakatu dugu. Denak balio du azkenean gaintitzen bada, nahiz eta ez jakin edo ikasitakoa ezertarako ez balio..

Normala da heldu askok (irakasle, guraso) ikasketak etorkizunean postu on bat lortzeko edo dirua irabazteko baldintza penagarri moduan ikusteak. Lehen (orain dela urte batzuk), besteek baino zerbait gehiago zekienak lanik txar eta gogorrenak saihesten zituen. Aurreko belaunaldiak hori biztu zuten, irainak ez jakinak izateagatik eta normal da beraien seme/alabentzan hori nahi ez izatea

Zalantzarik gabe beraien irizpideak ulergarriak dira. Baina arrazoi horiek frustrazio, anbizio edo gorrototik sortuak dira. Baina arrazoi hauek denak ez dira nahiko ikasle izatea pribilegio moduan bizitzeko.

Ikasle izatea oso gogorra eta serioa da. Etorkizuna horren menpe dago. Baina pribilegio bat izaten jarraitzen du, nahiz eta momentuan ez jabetu horretaz. Hainbat dira ikastearen oinarria bizitzen ez dutenak, aberastasun pertsonalen iturri nagusia da, bizitzari zentzua emango diona.

Ikasle izateak merezi du, konprometitu horrek esan nahi duenarekin, gure identitatea zehazten lagunduko digulako inguruarekiko harremanean.

Merezi du orduak eta orduak eta pasatzea mahaiaren eserita, irakasle/ikasle bakoitzaren izateko era eta ezaugarriak jasateak, ebaluaketak bizitu, hainbat testu aspergarri irakurtzeak, amaitzen ez diren mailaz mailako urteak pasatzea. Ikasle izatea norberaren pertsonalitatea optimizatzeko erantzukizun eta betebeharra duen benetako lanbidea da.



EZTABAIDARAKO JARRAIBIDEAK



- Testu horietatik zer da zuretzako aipagarriena?
- Zerbaitekin zaude ados?
- Zerbaitekin ez zaude ados?
- Ikasle izatea zoriona ala zoritxarra da?
- Ikasle izateko zeintzuk dira benetako motibazioak eta zeintzuk zuen guraso, irakasle edota gizarteak esaten dituztenak?.

Ikasteko denbora antolatu egiten dut

Justifikazioa.

Ikasteko denbora antolatzea ez da bat ere erraza izaten ikaslearentzat, batez ere kontuan hartzen badugu euretako askok ez dutela behin ere horren beharrean pentsatu.

Antolatzeak helburu garbiak edukitzea eta horretarako bitarteko egokiak edukitzea eskatzen du. Zentzu honetan, ikasteari eskainiko zaizkion orduak antolatzeak bakoitzaren aukerak ongi ezagutzea eskatzen du, denbora hori ongi banatu ahal izateko.

Ezin dugu ahaztu ikasteko ohitura eta horretarako estrategia egoki batzuk edukitzeak ikasleek autoestimua eta etekin eskolarra handitzen duela. Ohitura ikasteko denbora antolatzeetik hasten da, lehen pausua.

Helburuak.

- Bakoitzaren lan ordutegia antolatzen ikasi eta betetzera konprometitzea.
- Bakoitzaren gaitasun, behar eta interesen arabera ikasteko ordutegi pertsonala osatzen jakitea.
- Asteko, hilabeteko edo ebaluaketako ikaste denbora egoki antolatzea.
- Arlo guztiak ikasi ahal izateko, zailtasun eta jardueren arabera bere denbora banatzen jakitea.
- Aisirako denbora ere programatzea.
- Lanerako ordutegi bat osatzea.

Saiorako jarraibideak.

1. Ikasleei azaldu behar zaie: Ikasten jakitea ikasleen lehenengo betebeharra dela, inork ez du bere lana ongi egiten ez badaki nola bete behar duen. Ikasten jakite horretan plangintza bat ezinbestekoa da, lan, betebehar eta jarduera guztiak ordutegi batean zehaztuko dituen. Plangintza hori segituz gero, errazago lortuko da ikasteko ohitura, emaitza onak eskuratzeko eta urte luzeetan ikasten jarraitzeko hain beharrezkoa den ohitura hain zuzen ere.
2. Eguneroko lana antolatzeak, ikasteko denbora ez ezik, atsedena eta aisialdi garaiak antolatzea ere suposatzen duela jakin behar dute. Ikasteko, atsedena hartzeko eta beste jarduera batzuetarako denborak ongi banatu eta antolatzea norbere buruarekin hobeto sentitzeko motiboa izaten da, betebehar eta egiteko guztiak burutzeko gaitasuna sentitzen delako.
3. "Ikasteko denbora antolatzen" dokumentua irakurri denon artean (hau beti zuen esku nola egiten duzuen, ikasle batek, tutoreak, bakoitzak ... nahiago duzuen bezala).

Behin irakurri ondoren galdetegia erantzuteko eskatzen zaie.

"Norberaren lan plangintza" betetzeko eskatuko zaie ikasleei: aurrez arratsaldean antolaketa burutu zuten, orain ikasteko gorde zituzten ordu horiek

antolatzea eskatzen zaie aste erreal batean. Gogoratuko zaie kontuan hartzeko irakasgai ezberdinen eskakizun maila, bakoitzaren zailtasun maila, eguneko ...

4. Azkenik, "autotesta ikasteari buruz" bete dezatela, 7 arlotan banatuta dago, oso motxa da et hortik beraien ikasle grafiko moduko bat lortuko dute, zeinetan hobetzea komeni zaien garbi ikusiz. Amaitzeko "ikastea hobetzeko estrategiak" irakurri denon artean (hau beti bezala nola egin zuen esku geratzen da) eta komentatu aipagarria iruditzen zaizuen hori, ados ez ...

Ikasteko denbora antolatzen

Ikasle bezala, ikasturte hasieratik argi izan behar duzu zein bide egin behar duzun eta zer-nolako zailtasunak aurki ditzakezun. Horregatik, antolaketa bat izaten ohitzea gauza ona da eta horretarako lan-plangintza bat egitea gomendagarria da, ikasteko ANTOLAKETA eta ORDUTEGI bat zehaztuko duen lan-plangintza hain zuzen.

1. PLANGINTZA

Ikasten eta etxeko lanak egiten ematen den denbora antolatzea eta banatzea da. **Epe luze, ertain** edo **motz** baterako izan daiteke.

Epe luzerako

Ikasturte hasieratik, ikasgai bakoitzaren ikuspegi zabal bat izaten saiatu behar duzu: gaien banaketa hiru hilabete bakoitzean, ebaluazioak, irakaslearen ... Era berean, ebaluazioen datak, egin beharreko azterketak eta lanak, e.a. sartu behar dira ikuspegi honetan.

Zeure gaitasunak eta ezaugarriak ezagutzen dituzun aldetik, aurki ditzakezun zailtasunak kontuan hartu eta horiei aurre egiteko modua zehaztu ezazu.

Epe ertainean

Hiru hilabete edo ebaluazio bati dagozkion gaiak kontuan hartu behar dituzu epe ertaineko plangintza batean. Horrela, egin beharreko jarduera, lan eta kontrol guztiak eta beharko dituzun material guztiak ere aurreikusi behar dituzu, geroago denbora falta ez izateko ebaluazioa iristen denean.

Epe motzean

Errazagoa da egiten. Aste batean edo bi asteko epean sartzen diren gaiak, jarduerak, irakurketak eta gainerako ariketak kontuan hartu behar dituzu.

Irakasgai bakoitzaren zailtasunaren arabera edo irakasle bakoitzaren eskakizunaren arabera banatu beharko dituzu.

2. ORDUTEGIA ETA BERE EZAUGARRIAK

Plangintza orokor horrez gain, lan pertsonalerako ordutegia antolatzen ere jakin behar da. Ordutegi finko bat izatea ezinbestekoa da, eta gero horri eutsi nahiz eta batzuetan aldaketak egiteko beharra izan sortzen diren premien arabera.

Ordutegi on batek zenbait ezaugarri izan behar ditu, zuk, ikasle bezala, ezagutu behar dituzunak ondoren zeure ordutegia egin ahal izateko.

Ordutegiaren ezaugarriak

1. **Errealista:** Zure beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuko dituen, aisialdian, kirolean edota beste jarduera batzuetan emango duzun denbora ere azalduko duena.

2. **Malgua:** Zure ikasketak errazteko tresna bat izan behar da; beraz, edozein unetan sor daitezkeen ustekabeak ere arazorik gabe konpontzeko malgutasuna izan behar du.
3. **Pertsonalizatua :** Zure izateko moduari eta ohiturei egokitzen den ordutegia izan behar du (arlotan ezberdinekin zuretzako duten zailtasun maila, ikasteko ordu gogokoenak, atsedena hartzeko ere egun eta ordu gogokoenak e. a. kontuan hartuko duena, alegia).
4. **Berrikusi daitekeena :** Noizean behin, 2-3 astean behin esaterako, ordutegiaren betetze maila baloratu eta, beharrezkoa balitz, aurkitutako akatsak zuzendu beharko dituzu. Aste bakoitzaren hasiera ere, azterketa edo lanak aurreikusten direnean, aldaketa horiek sartzeko une egokia izan daiteke.
5. **Orekatua :** Gutxienez, astean 5 egun seinalatu behar dira ikasteko, eta egunero ikasteko orduak 2 baino gutxiago ezin dira izan. Arloen zailtasunen arabera ere denboraren banaketa eta atsedenen denborak ere kontuan hartuko ditu. Azterketak baino lehen ikasteko denbora tartea luzeegi eta nekagarriak egitea eta, ondoren, egun askotan ezer ez egitea ez da oso eraginkorra.
6. **Idatzia :** Ordutegia idatzi eta begi aurrean eduki behar da. Horrela, errazago izaten da akatsak antzematea eta behar diren aldaketak sartzea.

Kontuan hartzeko beste alderdi batzuk

Ikasturtea antolatzeko eta zure lan ordutegia egiteko zenbait alderdi garrantzitsu batzuk ere aipatuko ditugu jarraian.

1. **Ikasturtearen hiru hilabete bakoitza antolatzeko**
 - Beharrezkoa izango duzun materiala.
 - Ebaluazioaren data.
 - Egin behar dituzun lanak (emateko data).
 - Irakurri behar dituzun liburuak.
 - Aurreikusitako jarduerak (entrenamenduak, ikastaroak, txangoak, e.a.)
 - Berreskuratu behar dituzun arloak (berreskurapen-jarduerak).
 - Bestelako ustekabeak.
2. **Aste bete edo bi astetarako jarduerak programatzeko:**
 - Ezer baino lehen, programatu nahi duzun aste edo asteak finkatu behar dituzu.
 - Igandea edota astelehena izan daitezke egun egokiak hori egiteko.

Ondoren

 - Ikasten emango duzun denbora finkatuko duzu
 - Arlo ezberdinen artean banatuko dituzu beraien zailtasun eta garrantziaren arabera
 - Kontuan hartuko dituzu egin behar dituzun lanak eta baita berrikustekak egiteko behar duzun denbora ere
 - Ez ahaztu denbora horretarako aurreikusita zenituen bestelako jarduerak ere.
3. **Zure ordutegi pertsonala egiteko :** Zure ordutegia egiteko, lehen aipatu diren ezaugarriez gain, ondoko hau zehaztu beharko duzu:
 - Ikastetxean duzun ordutegia.
 - Modu jarraitu batean egiten dituzun beste jarduerak.
 - Horiek egiten ematen duzun denbora.

- Arlo edo ebaluazioren bat berreskuratu behar duzun ala ez.
- Arlo ezberdinetan duzun zailtasuna.
- Ikastetxera joaten normalean ematen duzun denbora.

4. **Azkenik, iradokizun praktiko bat:** Zure logelan edo ikasteko tokian, leku ikusgai batean zure ordutegia eta bestelako datu jakingarriak (azterketa edo lanak emateko datak) apuntatzeko modua baduzu, ordutegia betetzea errazago egingo zaizu.

ONDOREN EMANGO DIZKIZUGUN EREDU ETA ESKEMEK LANA ERRAZTUKO DIZUTE

FORMULA HAU GOGORATU :

ARRAKASTA ESKOLAN = Gaitasunak+ *Ahalegina*

+ (*Ikasteko Teknikak, emandako denbora, ikasteari eutsi, norbere buruaren konfiantza eta interesa*)

Nola antolatzen dut ikasketa?

Ondoko galderari zintzotasunez erantzun:

- | | |
|---|---|
| 1. Zer-nolako zailtasunak dituzu zure ikasteko denbora antolatzeko?
Arlo bakoitzean eman behar dudana denbora finkatzea zaila egiten zait.
Programatu dudana ez dut jarraitzen gero
Ezin dut praktikara eraman | 6. Normalean, etxean ala liburutegian ikasten duzu?
Etxean
Liburutegian |
| 2. Nola kontrolatzen duzu ikasteko denbora?
Ikasi baino lehen finkatu egiten dut arlo bakoitzean emango dudana denbora eta gero betetzen dut.
Lehenbizi ariketak egiten ditut eta gero, denbora geratzen bazait, ikasgaiak ikasten ditut.
Arlo bakoitzaren zailtasunaren arabera banatzen dut denbora. | 7. Zeintzuk dira ikasteko gustukoak dituzun orduak?
Arratsaldeko orduak
Gaueko orduak
Beste batzuk |
| 3. Zenbat ordu ematen duzu egunero ikasten (batezbeste)?
3 ordu baino gehiago
3 ordu
2,5 ordu
2 ordu
1,5 ordu
Ordu bat baino gutxiago | 8. Ordu batzuetan izandako aprobetxamenduaren arabera, zure ordutegia aldatu duzu?
BAI
EZ |
| 4. Aprobetxatzen dituzu asteburuak ikasteko?
BAI
EZ

Zenbat denbora ematen duzu gutxi gorabehera? | 9. Ikasteko denboran baduzu laguntzarik?
BAI
EZ
Gurasoak
Irakasle bat
Ikaskideak |
| 5. Zure familiak errespetatzen du zure ikasteko denbora?
BAI
EZ | 10. Etxean baduzu kontsultak egiteko edo beharrezkoak izan daitezkeen beste materialak (hiztegiak, ...)?

BAI
EZ |

-
- GALDETEGI PERTSONALEAN seinalatu dituzun aukerak berrikusi. Ikasteko denbora finkatzeko zailtasunak badituzu edota egunero gutxienez bi ordu ikasten ematen ez baduzu, zure antolaketa aldatu behar duzu, ezin duzu horrela jarraitu. Zure irakasle, guraso nahiz ikaskide baten laguntza eta aholkuak bilatu beharko zenituzke. Saia zaitetz.
 - Orain bai zaudela zure ordutegi pertsonala finkatzeko eta berarekin konprometitzeko egoeran. Ikusi duzu nola horrek laguntzen dizun zure denbora hobeki antolatzen eta aprobetxatzen.
 - Noizean behin berrikusteko eta beharrezkoak diren aldaketak sartzeko konpromezua ere har ezazu.

AUTOTEST BAT IKASTEARI BURUZ

IKASTEARI BURUZKO AUTOTESTA

Zertaz hitz egingo dugu?

- Ikasten jakitea ez da arte bat. Jende guztiak ez daki ikasten, nahiz eta liburuen aurrean edo klasean ordu mordo bat galdu.
- Nahi duzu ikasten jakin?
 - Urrezko arau bat dago: egunero praktikatu.
 - Atleta onenak ere ez dira atleta jaiotzen: egunetik egunera atleta bihurtzen dira.

Ikasteko tekniken inguruan zenbait saio praktiko egingo ditugu.

Auto-test bat eginez hasiko gara, ez zure gaitasuna baloratzeko baizik eta zure metodologia.

- Alboko laukian X batez seinalatu normalean egiten duzuna.
- X bat baino gehiago seinala ditzakezu.
- Galderen artean ez badago ezer zure ohiturekin bat datorrena, ez ezazu ezer seinala.

1. Ikasteko tokia

1.1. Nire ikasteko tokiak baldintza egokiak ditu: mahaia, aulkia eta argia.

1.2. Zarata sortu edo arreta galdu arazten duten aparailurik gabekoa: telebista, musika, ...

1.3. Niretzako erreserbatik dago eta bertan ditut beharrezkoa diren liburuak.

1.4. Lanak egiteko beharrezkoa den guztia eskura daukat.

2. Ikasten ematen dudana denbora

2.1. Egunero ikasteko badut denbora erreserbatua (.....etiketara)

2.2. Idatzita eramaten dut zer ikasi behar dudana edo zeintzuk diren egin beharreko lanak.

2.3. Ikasteko hobekien nagoenean jartzen naiz ikasten, hau da, ez oso nekatuta nagoenean kirola egin ondoren edo logura sartzen zaidanean.

2.4. Badut beste pertsona baten laguntza nire lana gainbegiratzen duena eta zalantzak argitzen dizkidana.

3. Irakurriaren ulermena

3.1. Ikasi behar dudana zerbait irakurtzen ari naizenean, arkatzez azpimarratzen dut garrantzitsuena.

3.2. Lerroalde bakoitzean ideia edo hitz nagusia nabarmentzen dut

3.3. Garrantzitsuena dena edo ideia nagusia dena azpimarratzen dut.

3.4. Kontzeptu edo hitz nagusiak definitzeko ohitura dut, ondoren eskema-laburpen bat egin ahal izateko.



4. Apunteak

- 4.1. Irakasgai bakoitzeko badut atal bereiztu bat nire karpetan.
- 4.2. Apunteak hartzeko orrialdeetan zenbakia eta zein irakasgairi dagokion agertzen da.
- 4.3. Are gehiago, orrialde bakoitzak badu izena edo kode bat adierazteko zein irakasgai eta gairi dagokion.
- 4.4. Ikasgai bakoitza eskema edo gidoi batean laburtzeko ohitura daukat.

5. Eskemak

- 5.1. Ikasgai bakoitzeko eskema bat egiten dut, ideia eta atal nagusiekin.
- 5.2. Eskema hauekin errazago ikasten dut, dena begi-kolpe batean bilduta dudalako.
- 5.3. Modu grafiko batean irudikatu daitekeen guztia marrazten dut: mapak, anatomia, figura geometrikoak,...
- 5.4. Ikasgai bakoitzeko badut hiztegi bat, neuk egindakoa, kontzeptu nagusiak biltzen dituena.

6. Lanak egin

- 6.1. Nire agendan apuntatuta daukat zertaz egin eta nolakoa izan behar den egin behar dudana lana.
- 6.2. Irakasleak aholkatzen dituen liburuak kontsultatzen ditut.
- 6.3. Liburutegiren batera joateko ohitura daukat.
- 6.4. Lana egiteko biltzen dudana informazioa orrialde ordenatuetan jasotzen dut.
- 6.5. Lana egin baino lehen, idatzi behar dudana aurkibide-gidoi bat egiten dut eta ondoren borradore bat zuzenduko dudana garbira pasa baino lehen.

7. Ikastea eta errepasatzea azterketak baino lehen

- 7.1. Agendan apuntatuta daukat noiz izango diren azterketak eta zein diren azterketan sartuko diren gaiak.
- 7.2. Azterketa bezpera baino lehen hasten naiz ikasten.
- 7.3. Ikasten ari naizela, eskemak edota laburpenak egiten ditut. Zalantzak baditut, apuntatu eta geroago argitzen saiatzen naiz.
- 7.4. Azterketen prestaketa denboraz planifikatzen dut, birpasatzen denbora nahikoa izateko.



arraian, zure ikas-tekniken analisi bat egingo dugu. Dena den, analisi hau hurbilketa bat baino ez da, eta inolaz ere azterketa sakon bat.




	1	2	3	4
1. Tokia				
.....				
2. Denbora				
.....				
3. Apunteak				
.....				
4. Irakurketa				
.....				
5. Eskemak				
.....				
6. Errepasoak				
.....				
7. Lanak				
.....				

Zein da zure ikasle grafika?

- Testa egiteko jarraibideak
 - Zutabe bakoitzean X batez markatu duzun zenbakiak azaltzen du atal ezberdinetan lortu duzun maila (1etik 4ra)
 - Erantzun bat baino gehiago markatu baduzu, zenbakirik altuena da baliagarria dena.
- Emaizten interpretazioa
 - Lortu duzun maila bakoitzaren balioa honako hau da:
 - Lehenengo maila: **Gutxienekoa**
 - 2. maila **Onargarria**
 - 3. maila **Ongi**
 - 4. maila **Bikain**

Teknikaren batean X bat bera ere ez baduzu markatu, gutxienekoaren azpitik zaudela esan nahi du



Grafikaren analisisa (Erabat pertsonala)

- Zer-nolako ikasle profila atera zaizu grafikan?
- Pozik zaude emaitzekin?
- Arazo larriak dituzula uste duzu? Gainditzeko modukoak dira ala ez?
- Zeintzuk dira hobetu behar dituzun atalak?
- Ebaluazio bakoitzean auto-test hau errepikatzea ongi etorriko zaizula uste duzu?

IKASTEA HOBETZEKO ESTRATEGIAK

IKASTE HOBETZEKO ESTRATEGIAK

- Autotestan emaitza onak izan badituzu, segi orain arte bezala lanean. Akatsak baldin badituzu, ez etsi!, badira horiek gainditzeko estrategiak.
- Ondoren, zenbait estrategia landuko ditugu.
- Atalka joango gara.

1. Ikasteko tokia

- Ikasteko toki eta giro egokiak sortu; grafikaren 3. mailara arte, gutxienez, igotzen saia zaitez.
- Zure gurasoei laguntza eskatu horretarako

2. Ikasten ematen dudan denbora

- Atal honetan gutxienez 2. maila lortu behar duzu.
- Zerbait serio egiteko gutxienerako abiapuntua da hori. Zuk zeuk erabaki gaur bertan zenbatekoa izango den zure ikasteko denbora egunero. Ikasteko denbora ongi antolatzeke, nekea sortzen dela kontuan har ezazu eta lanak arazoizko modu batean planifikatzea gomendagarria da.
- Adibide moduan, hona hemen plangintza bat:

- Lehenengo zatian: lan edo arlo zailak
- Bigarren zatian: erdi mailako zailtasuna
- Hirugarren zatian: lan edo arlo errazak



3. Irakurriaren ulermena

- Eskuan arkatza izan gabe ez jarri irakurtzen.
- Hitzak edota esaldiak ongi azpimarratu (azpimarratze horizontala). Era berean egin lerroaldeekin (azpimarratze bertikala)
- "Txuleta" bat egin eta bertan bi galderari erantzuna eman:
 - Zertaz ari da lerroalde honetan?.
 - Zer dio?.

4. Apunteak

- Zure apunteak ordenatu 3. mailara iritsi arte
- Kontuan hartu:
 - a) Jarraian dagoen eredua
 - b) Ahal duzun guztietan paper laukidunean egin
 - c) Egunero eta arlo guztietan egin
 - d) Apunteak zein arlotan dituzun apunta ezazu



Orrialde bakoitza 3 ataletan banatzea gomendatzen da:

1. Data eta hiztegia
2. Ikasgaiaren apunteak
3. Erlazioak


Data	Zelulen erreproduzioa
07-V-02	I. atala Mitosia
ikasgaiaren hiztegia	II. atala: Meiosia
Liburuaren orrialdea, jarduerak, ariketak

5. Eskemak

- Posible duzu 3. mailara iristea seriotasunez ahalegintzen bazara.
 - Eskema guztiek egitura bera dute, nahiz eta modu ezberdinean agertu, esate baterako: organigrama, eskema zenbakiduna,....
- 0 Gaiaren izenburu nagusia
- I. Lehenengo atala: Izenburua
- a) Ideia nagusia
 - b) Zehaztasunak eta adibideak
- II. Bigarren atal nagusia: Izenburua
- a) Ideia nagusia
 - b) Ideia honen ezaugarriak
 - c) Adibideak, marrazkiak.


Eskemen teknika praktikatu ondoko eredu hauekin:

1. Abstrakzioa
 - 1.1. Aurreirakurketa
 - 1.2. Ideia nagusiak
 - 1.3. Azpimarratze
 - 1.4. Laburtu
 - 1.5. Eskemak egin
 - 1.5.1. Puntu klabeak
 - 1.5.2. Motak
 - 1.5.2.1. Diagrama
2. Eskemak, e.a.



6. Errepasoak eta Ikastea

- Ikastea eta ordutegia planifikatua baldin baduzu, azterketak prestatzeko mailetan igotzen joan zaitezke, 4. mailara iritsi arte, ondoko prozesu hau jarraituz :



7. Lanak egitea

- Lan bat egitea ez da liburu edo entziklopedia batetik egiten kopiaketa hutsa
- Lan on bat sortzailea, pertsonala eta zehatza da
- Irakasleen jarraibideei kasu egin beti
- Lan nola egin ez badizute zehaztu, ondoko eskema hau jarrai dezakezu:
 - Azala**
 - Izenburua
 - Datu pertsonalak
 - Barrualdea**
 - Aurkibidea
 - Aurkezpena
 - Gaiaren garapena, ataletan
 - Ondorioak**
 - Balorazioa
 - Kritika, iruzkinak
 - Erabilitako Bibliografia**



Azala
Izenburua
Datu Pertsonalak
Irakasgaia
Data

Barrualdea
Aurkibidea
Aurkezpena
1. zatia
Atalak
2. zatia

Ondorioak
Kritika
Iruzkinak
Bibliografia



IKASKETA METODOA 2iAELAB

1. Irakurketa azkarra
2. Arretaz eginiko irakurketa
3. Azpimarratu
4. Eskema
5. Laburpena
6. Adierazi
7. Birpasatu

Jarraitu beharreko urratsak:

Irakurri azkar gai osoa. Gaintetik zertaz doan eta zein atal dituen ikusteko. Ikasten jarri berritan errendimendua aski baxua denez, beroketa gisa balioko dizu.

Atal bakoitza arretaz irakurri. Egin galderak zeure buruari. Hitz ezezagunak hiztegian bilatu.

Funtsezkoena azpimarratu. Bilatu ideia nagusiak. Erabili kolore gorria garrantzikoena azpimarratzeko eta urdina hain garrantzitsua ez denerako (kolore ezberdinak izan daitezela, berdin da zein).

Azpimarratutakoaren eskema. Garrantzitsuarenaren gidoia eta sintesia izanen da. Eskemari begirada bat aski izan behar da atalaren oinarritzkoaz jabetzeko. Oso erabilgarria egingen zaizu birpasatzeko garaian.

Eskemaren laburpena, norberaren moduan eta hizkeran egina.

Adierazi, laburpena ozenki esan, beste norbaiti komentatu ikasitakoa (gurasoei, etxeko beste ...)... Era berean, idatziz egitea ere komenigarria da batez ere azterketak orokorrean idatzizkoak izaten direlako.

Laburpenak noizean behin birpasatzea ere komenigarria da, ahaztu ez daitezen. (hurrengo egunean, aste bete pasata, hilabetea pasata, azterketa baino bi egun ... irakasgaiaren arabera beharrak ez berdinak izango dira).